

Migel Jauregi
Antzuola, Gipuzkoa

Migel_Jauregi

Aurkibidea

Biografia

Migel_Jauregi

Kalebarrenen jaio zen, baina bera gaztetxoa zela aita hil zitzaien eta Altzeta baserrian hazi zen. Aitak Telleria larrugintzako fabrian lan egiten zuen. Aita hil zenean, anaia hasi zen lantegian aitaren ordean, eta anaia soldadu joan zenean, Migel bera hasi zen Telleria fabrian, larrua ontzen. Gerora Bareño lantegian ere ibili zen eta baita "Hilaturas de Bergara"n ere.

Zintak

ANT-098

- **Proiektua:** Larru ontzea Antzuolan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirresarobe, Asier - Tellabide, Josu
- **Data:** 2006-01-01
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** DVD
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Lantoki askotan ibilitakoa

- **Erref:** ANT-098/002
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:00:43. **Bukatu:** 00:02:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Kalebarrenen jaio zen, baina bera gaztetxoa zela aita hil zitzaien eta Altzeta baserrian hazi zen. Anaia soldadu joan zenean, Migel bera hasi zen Telleria fabrian, larrua ontzen. Gerora beste hainbat lan izan zituen.

2. Aitaren ordeza anaia Telleriarenera eta anaiaren partez bera

- **Erref:** ANT-098/003
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:02:19. **Bukatu:** 00:03:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Aitak Telleria larrugintzako fabrian lan egiten zuen. Aita hil zenean, Enrike anaia hasi zen lantegian aitaren ordeza, eta anaia soldadu joan zenean, Migel bera hasi zen.

3. Telleriareneko lanak

- **Erref:** ANT-098/007
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:06:11. **Bukatu:** 00:08:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Telleria larrugintzako lantegian zein lan egiten zituzten kontatzen dute pausuz pausu.

4. Gazterik hasi ziren lanean

- **Erref:** ANT-098/008
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:08:04. **Bukatu:** 00:09:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Migelek 19 urte zituen Telleriaren lantegian hasi zenean lanean eta Santosek 14 urte inguru. Santosek eskola utzi zuen ordurako eta gau-eskolara joaten zen. Baserrian ere lan egin behar izaten zuten.

5. Baserriko lanetan

- **Erref:** ANT-098/010
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:09:26. **Bukatu:** 00:10:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserriko lanetan aritutakoak dira Migel eta Santos. Denbora libre guztiak, tarte guztiak, aprobetxatu behar izaten ziren. Santos sekula ez zen ganaduarekin aritu.

6. Kurtideriako lana astuna zen; uniformeak

- **Erref:** ANT-098/013
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:11:12. **Bukatu:** 00:13:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Kurtideriako lana gogorra da eta baserrikoa arinagoa, baina baserriak ez zuen dirua ematen. Larrua ontzea lan astuna zen, pisu asko hartu behar izaten zuten bizkarrean. Lanerako uniformeak zein zen azaltzen duten. Lurra beti egoten zen bustita.

7. Umetako lanak

- **Erref:** ANT-098/015
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:13:36. **Bukatu:** 00:15:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Goierriko lantegiak

Laburpena:

Santos 13 urterekin Zumarragako Orbegozo lantegian hasi zen lanean. Egun osoan lanean egoten ziren asteko zortzi pezetaren eta mantenuaren truke.

Etxe partikular batean egoten zen. Irabazitako dirua amari eman behar izaten zion. Migel amaren jaiotetxera joan zen morroi.

8. Telleriareneko langile-kopurua

- **Erref:** ANT-098/017
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:16:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Telleria larrugintza lantegiko langile kopurua. Kurtiderian 10-12 lagun egoten ziren, 20 asko jota; larrutegian ("guarnizioneria"), ostera, askoz gehiago ziren, lan asko izaten zuten-eta.

9. Estraperlo garaian ezin gorde larrua

- **Erref:** ANT-098/019
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:17:03. **Bukatu:** 00:17:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Telleria larrugintza lantegian lan asko zuten. Estraperlo garaian, larrua gorde ezinda ibiltzen ziren. Zulo batean gordetzen zuten. Inspektoreak aritzen ziren zaintzen.

10. Telleria lantegiko nagusiak

- **Erref:** ANT-098/021
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:18:05. **Bukatu:** 00:18:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Telleria larrugintza lantegian lanean aritu zirenean, hango nagusia Juanito zen. Haren aita, Agustin, ez zuten ezagutu. Juanito hil zenean, haren anaia Luis, izan zen nagusia.

11. Zortzi orduko lanaldia eta "sábado inglés"

- **Erref:** ANT-098/022
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:18:43. **Bukatu:** 00:19:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Telleria larrugintza lantegian zortzi orduko laneguna izaten zuten, lan asko izanez gero hamar bat orduz egiten zuten lan. Zapatutan ere lan egiten zuten "sábado inglés" jarri zuten arte, orduan zapatu arratsaldea jai egiten zuten.

12. San Simon larrugintzako enpatroia

- **Erref:** ANT-098/023
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:19:32. **Bukatu:** 00:21:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

San Simon eguna, urriaren 28a, larrugintzan ari zirenen eguna zen. Hasiera batean arratsalde zai izaten zuten eta aparteko ordainsaria jasotzen zuten. Migelek dio elkarriketa garaian ere oraindik, 2006an, batzen direla kurtiderian aritutakoak San Simon egunez.

13. San Simon egunez bost ogerleko saria

- **Erref:** ANT-098/025
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:21:24. **Bukatu:** 00:22:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

San Simon eguna larrugintzan aritutakoen eguna da, eta aparteko ordainsaria jasotzen zuten, bost ogerleko. Buzkantzak jatea zen ohitura. Ez dakite neskek ordainsari hori jasotzen ote zuten, emakumeak larrutegian ("guarnizioneria") aritzen baitziren ez kurtiderian.

14. Telleria lantegiko arduradunak

- **Erref:** ANT-098/027
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:22:42. **Bukatu:** 00:24:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Telleria larrugintza lantegiko arduradunak zeintzuk ziren. Migelek Facundo Garitano ezagutu zuen eta Santosek nagusiaren aita ezagutu zuen. Larrutegiko ("guarnizioneria") arduradunak Lazaro eta Felix ziren, arabarrak.

15. Antzuolara erdaldunak noiz iritsi ziren

- **Erref:** ANT-098/028
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:24:10. **Bukatu:** 00:25:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

Telleria lantegian langileek euskaraz egiten zuten beti beraien artean. Erdaldunak beranduago heldu ziren herrira. Asko errepideak egitera etorri ziren bertara lanera.

16. Emakumeek eta gizonezkoek lan desberdina zuten

- **Erref:** ANT-098/031
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:26:09. **Bukatu:** 00:27:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Telleria lantegiko kurtiderian, larru ontzen, ez zegoen andrazkorik, larrutegian ("guarnizioneria") egoten ziren. Kurtiderian indar asko egin behar zen, lan atuna zen, Migelek dio mandoen moduan aritzen zirela.

17. Kurtideriako makinak

- **Erref:** ANT-098/035
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:29:26. **Bukatu:** 00:31:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Telleria lantegiko kurtiderian, larru ontzerakoan, zein makina erabiltzen zituzten eta zertarako ziren azaltzen dute.

18. Telleria lantegiko jorнала

- **Erref:** ANT-098/038
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:33:35. **Bukatu:** 00:34:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Telleria larrugintza-lantegian lanean hasi zenean, Santosek zazpi pezeta kobratzen zituen eguneko; lana utzi zuen sasoian, ostera, 300 pezeta hilabetean. Migelen sasoian eguneko 13 pezeta. Santosek ez zuen aparteko lantsaririk ezagutu, Migelek bai.

19. Intxortako bonbardaketak etxetik ikusten zituen

- **Erref:** ANT-098/044
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:43:40. **Bukatu:** 00:44:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Santos Antzuola eta Oñati arteko muga inguruan dagoen Isibu baserrian bizi zen eta gerra garaian Intxorta aldeko bonbardaketak ikusi zituen. Migelek dio denak "Isibu" bezala ezagutzen dutela Santos. Hamar urterekin Santos Antzuolara etorri zen bizitzera, aita bertora etorri baitzen lanera.

20. Soldadutza

- **Erref:** ANT-098/045
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:44:30. **Bukatu:** 00:46:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Migelek Burgosen egin zuen soldadutza 1957-1958 urte artean. Santos Ceutara joan zen eta bertan egon zen urtebete pasatxo, 1947an joan zen.

21. Telleria lantegiko oroitzapen onak dituzte

- **Erref:** ANT-098/047
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:46:37. **Bukatu:** 00:47:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Telleria lantegiko kurtideriako oroitzapen onak dituzte. Lankideekin ondo konpontzen ziren eta ez zuten sekula arazorik izan. Bata besteari laguntzeko prest egoten ziren beti eta ez zen grebarik-eta izaten.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com